

Nazio-arazoaren pedagogia: Irlandatik Euskal Herrira

Paulo Iztueta Armendariz
EHUko irakaslea

Artikulu honetan egileak Irlandaren historiari gainbegirada eskaintzen dio, XII. mendetik hasi eta gure egunetara arte, baina bereziki XX. mendeko gertakizunetan pausatuz begirada. Gero 1998ko apirilean Belfasteko Stormonteko jauregian Erresuma Batuko eta Irlandako gobernu-ordezkariek eta Ipar Irlandako alderdi politikoek izenpeturiko bake-akordioa aztertzen da xeheki, lau punturen garrantzia azpimarratuz: autodeterminatzeko eskubidearen onarpen baldintzatuak, esparru juridikoaren ezarpenak, talde paramilitarren dekomisioak, presoen askatzeak eta Ipar Irlanda berrantolatzeako herri-kontsultak. Azkenik, Irlandaren bideak Euskal Herriari irakats diezaiokeena aztertzen da, are Euskal Herrian negoziaketarako gutxienezko puntuak izango liratekeenak zehaztuz.

This paper offers an overview of the history of Ireland, from the XIIth century until today, with special attention to the events of the XXth century. The author offers a deep insight on the Peace Treaty signed in Stormont, Belfast, in 1998 by the political parties from Northern Ireland, government representatives of Ireland, and government representatives of the United Kingdom. The author emphasizes the relevance of four points: a) the acceptance subject to certain conditions of the right to self-determination; b) the establishment of legal realms; c) the surrender of weapons by paramilitary groups and the exarcerlation of political prisoners; and, d) the referendums on the political reorganization of Northern Ireland. Finally, the author analyzes the aspects of the peace process in Ireland to be taken into account in the peace process in the Basque Country and, moreover, examines which the minimal points that should constitute part of the negotiation process in the Basque case would be.

Nazio-arazoaren pedagogia: Irlandatik Euskal Herrira¹

Lehendik ere Irlandaz idazten jarduna naiz *Zabal*-en artean Franco bizi zela (Iztueta 1975), baita *Jakin*-en ere (Iztueta 1977), trantsizioan sartu eta gero. Lehen artikuluan, Eskozia eta Galesen aldean, Irlanda kolonizatuaren kasua sakonago aztertu nuen. Arrazoiak ere bazeuden horretarako. Jakina denez, kidesun handia zuten IRAk eta ETAk zeramaten borroka-estrategiek eta elkarren arteko harremanak ere baziren. Baina Euskal Herria eta Irlandaren kausa nazionalak zertan ziren berdinak edo antzekoak zehaztasunez jakiteko adina datu soziologikorik ez genuen. Doi-doi genekien, orduan IRAk eta ETAk bezala, lehen Sinn Féin-ek eta Aberri-koek harremanak izan zituztela. Apenas ezer gehiago. Izan ere, gerrate aurreko eta ondorengo belaunaldien arteko erreleboa informazio-trukaketarekin baino gehiago etenarekin egin zen eta puntu askotan, egia aitortu beharra dago, gure ezjakintasuna mundiala zen. Zentsura frankistak ere prentsa ederki estekatuta utzi zuen eta tarte gutxi geratzen zen gure iragan hurbila ezagutzeko.

Gure ezjakintasunak eraman gintuen, bada, Irlanda hurbiletik aztertzeraz. *Zabal*-eko artikulua horretan, irlaren kolonizatzearen urrats kronologikoak, nazionalismoaren sorrera eta Irlandako erakunde armatuak, Irlandaren lurralde-zatiketa, Dublineko gobernuaren politika, Ulster-en arazoa, katolikoen eta protestanteen arteko gatazkaren arazoi soziologikoak eta IRAren alternatiba ukitzen dira. Jarraian, horko edukia asko laburtu beharrez, punturik adierazgarrienak bakarrik emango ditugu.

1. Erresistentziaren bide luzea

Arrastoak ez uzten saiatzen den lapur ernearen antzera, bere aginpidea konkistatik hartua duen boterearen egitekorik nagusienetako bat, hain zuzen, gertakari historikoak mendekoen oroitzapen kolektibotik ezabatzea izango da. Intelektual organikoak arduratuko dira, historiaren noiz-nongotik iragana kendu eta, inoiz ezer gertatu izan ez bailitzan, etorkizuna gaurko errealitate soziologikotik planifikatzeaz. Gaurko errealitatea da, ni eta zu oraintxe bertan hartzen ari garen hatsa, zero puntua markatzen duena. Hau izaten da posibilista eta errealisten jokabiderik ohikoena.

Apriorismo horretan, ordea, daturik oinarrizkoena ahazten da, eta da oraingo errealitate hau, hutsez ez, iraganez egina dela baizik. Gizarte-bizitza etengabe eginez gatoz, gizartea uneoro egituratzen ari da, baina egituratze hori gauzatu, lehenik badirauten elementu egituratzaileei esker gauzatzen da. Gizarte-errealizazio praktikotetan beti daude bi elementu presente: gizarteko egitura objektiboak eta subjektu egileak. Hauek egiten dute historia, hor urtzen dira iragana eta oraina. Bestela esanda, orainaren eraikuntzan iragana dago. Hau gabe ezin da hura ulertu. Euskal Herriaren egungo egoera ezin da ulertu ez bada ezagutzen, historian atzera joanda, juancarlistaren trantsizioa, 1936ko gerratea eta frankismoa, gerra karlistak eta foruen abolizioa, Nafarroako erresumen konkista, erromatarren kolonizazioa etab. Horra!

1. Artikulu hau 1998-07-10ean hartu zen *Uztaro* aldizkariaren bulegoan.

Irlandaren kasua baitugu hemen aztergai, han nazio-arazoa zergatik den gatazka-iturri jakiteko, iraganera jo beharra daukagu.

1.1. Irlanda kolonizatua

Irlanda jadanik XII. mendeaz geroztik ingelesen mende zegoen, eskan-dinaviar, normandiar eta eskoziarren erasoak jasanez. Elisabet erreginarenean denboran, 1570az gero, hasten dira ingelesak hango lurak bereganatzen eta, XVII. mendean, Stuarts-en erregealdian, kolonialismoa areagotu egingo da. Iparraldean, Ulsterreko probintzian, eskoziar etorkinak finkatzen dira.

Baina ingeles kolonizazioaren bilakabidea desberdina izango da Iparraldean eta Hegoaldean. Kapitalismoak Ulsterreko eskualdean botatzen ditu bere erroak, XVII. mende-bukaeratik hasita, ehunaren eta algodoiaren industriarekin, eta protestanteak dira horren monopolioa dutenak. Hemengo burgesia protestanteak Britainia Handiko merkatuan bilatuko du bere merkaturia. Hegoaldean, ordea, ez da industri iraultzarik gertatzen; alderantziz, hemen kolonizazioak lurren desjabetze-politika azkartzen du, batez ere, 1801eko Batasun-Aktaren (*Act of Union*) ondorioz, Irlandako parlamentua desegin zenez geroztik. XVIII. mendearen bukaeran, bada, lurren % 5 bakarrik zen irlandar katolikoena. Nekazaritza eta abelazkuntzan oinarritutako Hegoaldeko lurralde hau ekonomi krisiak biziki astintzen du, hainbestearino ezen 1840ko goseteak milioi eta erdi hildako eta milioi bat inguruko emigrazioa eragiten baititu, gehienbat Estatu Batuetara. Bost urteren buruan, Irlandako populazioa zortzi milioitik seira eta berrogeita hamar urteren buruan, berriz, hirura jaisten da². Odoluste beldurgarria! Gosete handiaren ondorioz, morroiak gutxitu eta lurjabe txikiak gehitu egiten dira eta, XIX. mendearen azkeneko, nekazari libre, katoliko eta demokratikoez osatutako klasea sortzen da, eliza katolikoaren babesean, zeina irlandar nazionalismoaren oinarrian egongo den.

Honela, funtsean kolonialismo basatiaren kontrako erreakzioz, aipatutako klase berri horren baitan askatasunaren aldeko mugimendu nazionalistak sortzen dira. Isilpeko erakunderik zaharrena Fenian dugu, nekazari gazteek bultzaturik 1860. urte aldera agertzen dena eta xedetzat Irlandaren independentzia lortzea duena. Mugimendu honek alde batera utziko du Daniel O'Connell buruzagi katolikoaren britainiar konstituzionalismoa, bai eta parlamentarismo-sistema honen barruan eratu zen klase ertaineko katolikoaren batasuna ere³. Baina mugimendu hau 1916an desegingo da, hain zuzen ere, Sinn Féin ("Geu bakarrik", gaelikoz) indartzen denean⁴. Arthur Griffith-ek 1905ean sortutako mugimendu nazionalista honek proposatzen duena, hau da: Irlandak Britainia Handiarekin duen batasuna

2. Rice, Pat, "El ejemplo irlandés", *Egin*, 1997-11-16, 12 or.

3. XVIII. mendearen bukaeran, amerikar eta frantziar iraultzen eraginez, eta Irlandan gertatutako altxamendu baten ondorioz, 1801. urteko Batasun-Aktak Irlandako parlamentua desagertarazi zuen eta, honela, irla Britainia Handiaren zati bihurtu. Hizkuntzaz gaelikoduna eta pentsakeraz kontserbadorea zen Daniel O'Connell buruzagi katolikoak egoera hori kritikatu eta Askapen Katolikoaren Akta aurrera ateratzea lortzen du. Honek erdi-mailako klasearen interesak ordezkatzeko zituen eta bere kausarako nekazarien eta kleroaren sostengua zuen. Parlamentari izan zen Westminsterren 1829an (Iztueta 1975: 24). Hainbat iturriren arabera, urteok agertzen dira: 1899, 1902 eta 1905. Nik *Zabal*-eko azken hau dakart.

4. Erakunde honen sorrera-datatz ez da adostasunik. Iturri desberdinen arabera, urteok agertzen dira: 1899, 1902 eta 1905. Nik *Zabal*-eko azken hau dakart.

zuzenbidearen kontrakoa denez gero, Londresko parlamentuan Irlanda ordezkatzeko dutenak erretiratu egin beharko liratekeela eta, ingelesen parlamentarismo-sistema hori utzita, Irlandako gobernuak eraiki beharko litzatekeela, zeinak, 1782an eraturiko parlamentuaren antzera, Koroaren mendekoa izanez segituko bailuke⁵. Era berean, XIX. mendearen bukaeran, Dublin eta Belfast-eko gune industrialduetan kokaturiko langileriaren klase-interesak jasoz, Irlandako Alderdi Errepublikar Sozialista eratzen da, joeraz marxista.

Mugimendu politiko hauen inguruan eta babesean, irlandera indartzeko asmoz, kultur mugimenduak sortzen dira, batik bat, bi mugimenduok: Gaelic League 1893an eta Gaelic Union 1878an, azken hau definizioz apolitikoa eta akonfesionala izango dena. Lehenengoa, 1913. urte aldera, politizatu egingo da Pearse-ren eraginez.

Lehen Mundu-Gerra aurrean (1913), bestalde, arestian aipaturiko mugimendu politikoez gain, hiru talde armatu aurkitzen dira bertan: Edward Carson-ek zuzendutako Ulsterreko Unionisten Indar Bolondresak, U.V.F. deituak; J. Conolly sozialistaren Irlandako Hiritarren Armada (*Irish Citizen Army*); nazionalisten Irlandako Boluntarioak (*Irish Volunteers*). Lehen Mundu-Gerra hasi zenean, feniar nazionalistak eta sozialistak bost bat egunez erreboltatu ziren Dublinitan 1916ko apirilean Irlandaren Errepublika sortzeko xede politikoarekin, baina, herriaren laguntzarik izan ez zutenaz, 2.500 lagun inguru atxilotuak izan ziren eta horietatik 15 exekutatuak, hauen artean erreboltaren aldeko manifestua izenpetu zuten Connolly eta Pearse.

1.2. Irlanda zatitua

Zapalkuntzak eragindako lehen martiri horien oroitzapenak herri-gogoan oraindik bero-bero zeudela, 1918ko hauteskundeetan Sinn Féin nagusitu zen Hegoaldean, 105 aukeretatik 73 lortuz. Alderdiburu Eamon de Valera-k Irlandako Errepublika sortzeko helburua berretsi zuen. Urte berean, Collins eta Brugha feniar buruzagiek IRA (*Irish Republican Army*) sortu zuten eta irlandar nazionalistak bi urtez gerran aritu ziren britainiar tropen kontra. Baina Irlandako gehiengo nazionalista kontserbadoreak, Sinn Féineko Griffith bultzagile zela, Britainiako gobernuarekin paktatu nahi zuen; honekin hizketatuz gero, 1919an Irlandako Gobernu Probisionala (*Republican Dail Eireann*) eta 1921ean, berriz, Irlandako Estatu Askea eraikitzen da Dublinitan, *Commonwealth*-en barruan. Eliza katolikoak eta Sinn Féineko gehiengo kontserbadoreak presioa egin zuten Irlandako gobernuaren Akta hura onartua izan zedin, eta tratatuaren aldeko hauek atera ziren irabazle gehiengo batez 1922ko ekainean. Harrezkero, Irlanda bitan zatituta geratzen da eta bakoitzak bere bide autonomoa egingo du.

Hego Irlandan, une horretan, hiru milioi biztanletatik % 88 katolikoak eta nazionalistak ziren. Baina, irlandar herriaren lurralde-zatiketa zela kausa, komunitate nazionalista honen barruan ez zen batasunik. Izan ere, Sinn Féineko sektore garrantzitsu batek, Eamon De Valera errepublikarraren gidaritzapean, eta IRAk ez baitzuten onartu Irlanda bitan zatitzeko 1921eko akordio hori, gerra zibilari ekiten

5. Esan behar da 1782ko Konstituzioaren arabera, Dublineko Parlamentua aske zela Westminsterreko kontrolpetik, betearazteko botereari zegozkionetan izan ezik.

zaio 1922-23 epealdian zehar. Geroztik, Irlandako nazionalisten familian, beren estrategia politika instituzionala egitera mugatuko dutenen artean, bi alderdi nagusitzen dira: bata Fianna Fáil (“Patuaren soldaduak”), errepublikarra, eta Fine Gäel (“Familia gaelikoa”), kontserbadorea. IRA izango da klandestinitatera joko duen talde armatu bakarra.

Politika instituzionalean arituko direnen artean, garaian garaiko hauteskunde arrakastaren arabera, arestian aipatutako bi alderdi nagusi horiek txandakatzen dira Dublineko gobernuan. Goazen aroka gobernualdi bakoitzaren ezaugarriak zehaztuz.

Lehen aroan, Sinn Féineko adar moderatuaren ordezkari izandako W. T. Cosgrave izan zen Irlandako Estatu Askeko Kontseiluko lehendakari 1922-32 epealdian. Honek, hasieratik bertatik, Londresekin lankidetzako harremanak burutu zituen, batez ere maila ekonomikoan, eta lotura honek onura handiak ekarri zizkien hango burgesia txikiari eta lurjabe handiei. Europako herrialde kapitalistak errotik jipoitzen dituen 1929ko ekonomi krisia datorrenean ere, gobernuan kokatutako klase honek metropolitik jasoko du laguntza. Koloni lurralde izandakoetan ohi den bezala, Dublineko gobernuak Londresekiko duen ekonomi mailako mende-kotasuna oso agerian geratzen da. Baita maila politikoan duena ere, zenbait esparrutan autonomia baduen arren, base militarrek eta itsasokoak erabat britainiarren esku aurkitzen baitira 1937 urtea arte. Justu bere agintaldia bukatzen duen urte berean, 1932an, sortzen du Fine Gäel alderdi politikoa eta horren buru izango da 1944 urtea arte. Alderdi hau ideologiaz klasista da, hiri-burgesiaren eta nekazari indartsuen interesak zaintzen dituena, eta politika nazionalari dagokionez, berriz, batasunzalea. Alderdi honi atxikirik agertzen da Alderdi Laborista.

Bigarren aroan, Sinn Féineko errepublikarren buruzagi izandako Eamon De Valerak, borroka armatua utzirik, 1926an Fianna Fáil alderdi berria sortu zuen eta, handik aurrera, Irlandako politika instituzionalean parte hartuko du, baina oposizioan arituz, harik eta, 1932ko hauteskundeak irabazi eta gero, gobernu zuzentzera pasatuko den arte. Errepublikar alderdi hau izango da, 1949-51 eta 1954-57 epealdietan izan ezik, –zeinetan Fine Gäel-eko John Costello buruzagi kontserbadoreak gobernatzen duen–, agintean iraungo duena 1959 urtea arte. Alderdi honek bere gizarte-sostengua burgesia txikian eta langilerian aurkitzen du⁶. Hasieran, Eamon De Valerak, Irlandako Estatu Askeko Kontseilu betearazleko lehendakari izan zen garaian (1932-37), 1929ko krisi ekonomikoa zela eta, Irlandak Britainia Handiarekin zeuzkan zorrak ez ordaintzea erabaki zuen eta bien arteko gerra ekonomikoa piztu zen, 1938. urtea arte iraun zuena. Gerora ere, Eamon De Valerak, ekonomiaren plangintzari dagokionez, protekzionismoari eutsi zion eta jokabide autarkiko honek industriaren aterabideak estutu egin zituen; azkenean, 1954ko atarian, urteko 60.000 emigratu eta 90.000 langabeturen saldo negatiboarekin aurkitu zen Irlandako herria.

6. *Fianna Fail* alderdi nazionalista mendebaldeko kostaldean bizkortu zen laborarien artean. Berehala irabazi zuen Dublineko hiritarren sinpatia ere. Hiriburuko langileen artean Laboristen alderdian zeuden anitz pasa ziren alderdi honetara, honen nazionalismoak ukituta (Garvon, Tom, “Political cleavages, party Politics and urbanisation in Ireland: the case of the periphery-dominated centre”, *Journal of Political Research*, 2 bol., 4 zk., 1974, 307-327 orr.).

Bestalde, maila ekonomikoan bezala politikoan ere, epealdi honetan autogobernu handiagoz hornitu nahiko da Dublineko boterea. Honela, 1936ko Konstituzioan, Erresuma Batuari buruzko erreferentziak kendu eta Irlandako Estatu Askeari *Eire* izena jarri zioten. Baina, azkenean, Eamon De Valera Dublineko gobernuari osoki atxikirik egonen da, ezarritako ordena sozio-politikoan onartuz eta, gainera, Dublineko politikan erabat parte hartuz⁷. Bigarren Mundu-Gerran jarrera neutrala gorde zuen, aliatuekin harreman onetan, eta geroztik hango ekonomiak hobera egin zuen. Gero, 1948an Irlandako Errepublika eratzean, *Commonwealth*-etik atera egin zen. Orduan bakarrik izanen du Irlandako estatuak subiranotasun osoa, baina orduan ere Irlandako lurraldea bitan zatiturik segitzearen truke.

Hirugarren aroan, alderdi bereko Sean Lemas-en gobernualdian (1959-66), jadanik John Costello-k 1956an hasitako ekonomi politika irekiaren bidea hautatu zen eta, bertako ekonomia nazionala azkartu nahirik, 1964-70 epealdian kanpoko industriari eta diruari sarrera eman zitzaion. Une honetatik aurrera, irlan bertan, Belfasteko eta Dublineko gobernuen arteko harreman sozio-politikoak ezitzen hasi ziren eta 1965ean, zatiketaz geroztik lehen aldiz, elkarri bisita bana egin zioten. Kanpora begira, orobat, Britainia Handiarekin harreman ekonomikoak indartzen ditu, begiak Europako merkatuan dituela. Ekonomi mailako jokabide aldaketa honek, bistan da, bere alderdi positiboak izan zituen, hala nola, emigrazioa geldiaraztea eta industria azkartzea. Baina estrategia honek bere kontrapuntua izango du politika nazionalan, Irlandaren birbatasunerako bidean oztopo berriak metatzen baititu.

Laugarren aroa 1970eko hamarkadaren hasieran kokatzen da, Ulsterreko borroka gogortzen hasten denean eta, bereziki, IRAren aktibismoari erantzuteko Britainia Handiak Ipar Irlandara tropak igortzen dituenean. Dublineko gobernuak Londresen eta IRAren artean hartua sentitzen da eta, bietatik aldendu nahirik, NBEna joko du. Honek guztiak ezegonkortasun politikoa dakar, ondorioz, gobernuan etengabeko aldaketak sortaraziko ditu eta neurri zorrotzak hartuko dira, hala nola, mugak militarri zaintzea eta salbuespen-egoera aldarrikatzea 1976an.

Dublineko gobernuan txandaka agintzen duten bi alderdi hauek Irlandaren batasunaren aldekoak agertzen badira ere, hauen jokabidea bikoitza da: batetik, jarrera biguna agertzen dute britainiarren aurrean eta, bestetik, IRAren estrategia armatua onartzen ez dutenez, honi zapalkuntza sistematikoaren zigorra aplikatzen diote, Iparrean bezala Hegoan. Bietan, baina diferentzia honekin: han atzeritarrek eta hemen etxekoek.

1.3. Ulster: gatazkaren lehertzea

Ipar Irlandan unionistak nagusitzen direnez, hauek hartuko dute, 1920an, Belfasten ezarritako gobernu federala. Ordudanik Irlandako lurraldeak bitan zatitua segituko du. Hegoaldeko Irlanda Connacht, Leinster eta Munster probintziek osatuko dute eta Iparraldekoa, berriz, Ulsterrekoak. Baina Ulsterreko bederatziko konde-errietatik sei (hots, Antrim, Down, Armagh, Fermanagh, Londonderry eta Tyrone edo

7. Bera izango da Estatu Askeko Kontseilu Betearazleko lehendakari 1932-37 epealdian, kanpo-arazoetarako ministro 1932-48 epealdian eta lehen ministro 1937-48an eta, azkenean, Errepublikako lehendakari 1959-66an eta 1966-73an. Kontuan hartzekoa da puntu hau.

Belfast) bakarrik hartzen dituzte protestanteek, horietan beraiek gehiengoa dutelako. Beraz, Donegal, Cavan eta Monaghan eskualdeak berez Ulsterreko probintziari dagozkionak izanik ere, Ipar Irlandako gobernutik at geratzen dira. Irlandaren zatiketa artifizial honetan nazionalista katoliko kontserbadoreek, britainiar armadakoek eta unionista protestanteek parte hartzen dute. Hau da, zalantzarik gabe, datu politikorik garrantzizkoena, ondorio luze bezain larriak ekarri dituena.

Belfasten, Koroaren ordezkari gisa, gobernadore bat zegoen. Boterea Stormonteko parlamentuan zegoen, zeinak bi ganbera zituen: Kongresua eta Senatua. Biak zeuden Ulsterreko Alderdi Unionistaren eskuetan, eta berau izango da hegemonikoa, baita moderatuena ere, 1979 arte West-ek zuzendu zuena, gero James Molineaux-ek 1995a arte. Egun, 1996tik aurrera, David Trimble-k gidatzen du.

Ipar Irlandako eskualde batzuetan gehiengoa nazionalista katolikoa bazen ere, milioi eta erdi biztanletatik % 60 protestantea zen eta 40 bat urtez portzentaia horiek bere horretan segitu zuten, harik eta 1960ko hamarkadatik aurrera, katolikoek tasa demografiko altuagoak protestanteen hegemonia arriskuan jartzen duen arte. Orduan, beren botereari eusteko, unionistek Iparraldea beren eskuetan edukitzeko estrategia egokia asmatzen dute, komunitate katolikoarekin bereizkeria sistematikoa aplikatuz bai etxebizitzan eta lanpostuen banaketan bai bozkatzeko eskubidean.

Maila politikoan, protestante unionistek hauteskunde-sistema beren kome-nientziara moldatu izan dute. Legea hautsi gabe, baina errealitate soziologikoa erabat aldatuz. Honela, adibidez 1920ko hauteskundeetan, Cavan, Donegal eta Monaghan-eko eskualdeak bazterrean uzten dira, badakitelako horietan katolikoek gehiengoa dutela. Gero, 1929an, jabetzaren irizpidea ezartzen da bozkatzeko: zenbat diru hainbat boto. Hemendik ondorio bitxiak ateratzen dira. Horrela, 1966ko hauteskundeetan, Derry-n protestante unionistek, katolikoek 20.102 botoren kontra, 10.264 boto bakarrik lortzen dituzte, baina haien 16 ordezkari izatera iristen dira: hots, erdiak izanda, katolikoak halako bi. Honek ondorioz dakarrena da katolikoak hauteskundeetan beti kaltetuak ateratzen direla.

Maila sozialean, hauteskunderen aparte, irlandar katolikoak kontrolatzeko beste bide zehur bat enpleguak banatzeko politikan datza. Fermannagh-en adibidez, 1969an, zuzendaritza-karguetan 32 katoliko bakarrik dauden bitartean, protestanteen kopurua 338ra iristen da. Ia lantegirik ez da nazionalisten auzoetan. Bestalde, enpresak protestanteen eskuetan daudenez, langile katolikoak bigarren mailako langileak dira eta hauen langabezi tasa protestanteenaren halako bi da.

Horregatik, gutxiengo katolikoa sistemaz sozialki diskriminatua, lan-munduan bezala politikagintzan, bortxaren espirala hasiko da 1966az geroztik. Honela, gehiengo unionistak eskubide demokratikoak ukatzen baitizkio gutxiengo katolikoari, Belfasteko mendebaldeko auzo katoliko pobreetan indartuko da, hain zuzen ere, IRA eta hortxe bertan eratuko da, orobat, komunitate katolikoaren eskubide zibilen aldeko herri-mugimendua. Ordudanik, gatazkan dauden interesen arabera, Ipar Irlandan izaera desberdineko mapa politiko berria eratuko da 1970ean, gaurko eguna arte ia aldaketa handirik gabe iraungo duena, zeinetan,

gatazkaren logikak aginduta, Wensmiterrek, Stormontek eta Dublinek osatutako triangeluaren inguruan herri-mugimenduen zein indar armatuen zein alderdi politikoen polarizazioak garbiki nabarmenduko baitira. Aukera politiko horietan, kontraesan nagusiaren mailan, batetik, Erresuma Batuko estatu zentralistaren eta Ulsterreko gobernu unionistaren nazionalismo probritainiarra eta, bestetik, Irlanda birbatu eta independentearen aldeko nazionalismo proirlandarraren interesak eta jokabideak nahasten eta kontrajartzen dira. Bigarren mailako kontraesanak izanen lirateke Dublineko zein Stormonteko irlandar autonomisten eta independentisten artekoak eta, halaber, Londresko gobernu-politika zentralaren eta honen esaneko Stormonteko gobernu lokalaren artekoak. Bistan da, noski, triangelu horietako bakoitzean, unean uneko koiunturaren arabera, eta gatazkaren sabela handituz doan neurrian, lerro desberdinetatik datozen kontraesan-multzo horretan maila bateko zein besteko kontraesanak gurutzatuta datozela eta bakoitzaren interesak, hain zuzen ere, kontraesan horien ispiluan islatzen direla.

Hori guztia azaltzeko modurik onena, Irlanda osoaren kasua bere santon-tasunean azaldu nahi bada bederen, gatazkaren prozesua barrutik aztertzea da.

Lehenik, Irlandako eszena politikoan, alderdi instituzionaletatik aparte jardunez, Collins eta Brugha feniar buruzagiak 1919an sortutako IRAk daraman erresistentziaren lekukotza, zalantzarik gabe, hango erreferentziarik nagusienetako bat da, bera baita bere aktibismoarekin ezarritako botereak auzitan jartzen dituen eta, bidenabar, protagonismoa markatzen duena.

Adar armatu horren bilakabide historikoan, hiru mailok bereizi beharrekoak direla uste dut: batetik, maila ideologikoan dituen aldaketak leudeke; bestetik, politikagintzarako hautatzen duen metodoa –borroka armatuarena–; azkenik, militargintzan hautatzen dituen estrategia desberdinak. Askotan edo gehienetan, modu batera edo bestera, hiru mailok nahastuta edo batuta etorriko dira, baina ez ditugu horregatik izaera bereko gizarte-egitateak. Nolanahi ere, kasu honetan, badirudi bide politikoa ala militarra aukeratzearenak zerikusirik baduela ideologiarekin.

IRAREN ideologia, sorreraz eta oinarri-oinarrian, nazionalista da eta, oraindik zehatzago esanda, independentista, Irlanda osoaren subiranotasuna bilatzen duena. Xede hori lortzeko, politika-metodotzat borroka armatua hautatzen du haste-hastetik eta bide horri eusten dio denbora luzez. Baina 1960ko hamarkadaren bukaeran Ulsterreko eskualdean langile-arazoak azaleratzen direnean eta horko gatazketan joera marxistako mugimendu eta alderdiek parte hartzen dutenean, hauek eraginik badute IRAko kideen artean eta ordu arte ez zen krisi ideologikoa sortzen da. Krisi sakona, gainera, oso gogoan hartu behar baita irlandar nazionalismoa funtsean katolikoa zela eta langileriaren kausa internazionalismo-bokazioari loturik zetorrela. Iraultza marxistaren mezu askatzailean, bada, ez zegoen lekurik nazionalistentzat. Hauen egiteko historikoa iraultza burgesearekin bukatutzat ematen zen, Mendebaldeko Europan bederen. Horregatik, nazionalismo klasikoak marxismo klasikoarekin topo egiten duenean Irlanda katoliko eta nazionalistan, une horretantxe, hain zuzen, aurreko historia sozialean elkarri ukatuz etorritako bi pentsamendu soziologiko horien arteko ezkontzak IRAREN antolakuntza bitan zatitua uzten du: IRA ofizialean joera marxistako independentistak

kokatzen dira, borroka politikoa lehenesten dutenak; IRA behin-behinekoan, aldiz, beren oinarrizko estrategia borroka armatuan finkatzen dutenak. Eten honekin bai xedeak bai bitartekoak kolokan jartzen dira. Denboraldi batez bakoitzak bere aldetik borroka armatuarekin segitu ondoren, IRA ofiziala Irlandako Errepublikako politikan murgiltzen da, 1974tik aurrera legalitatearen barruan alderdi politiko gisa jokatu. IRA behin-behinekoak bakarrik segitzen du erresistentzia militarra egiten. Hauek ez dute konponbiderik ikusten, harik eta Britainiako armada Irlandako lurraldetik at uxatuta ikusi arte.

Estrategia militarren aldetik, berriz, IRAren aktibismoan lau aro bereiz daitezke. Hasierako 1919-1939 epealdian, IRAren jokabidea gehienbat testimoniala izan zen, zeinaren presentzia politikoa, ekintzetan baino gehiago, erresistentzian eta klandestinitatean islatuko den, batik bat. Nolanahi ere, Irlanda Britainia Handiaren koloni menderakuntzatik askatzeko xedearekin sortu zen, eta lehen urteetan, 1921. urtea arte, britainiar armadaren kontra aritu zen. Irlandaren zatiketarekin batera erakundea bera ere erditik puskatuta geratzen da, horko zati bat Irlandako armada ofizialean txertatuko den bitartean, besteak Irlanda batu eta independentearen aldeko borrokan segitzea erabakiko du. Erakundearen baitako lehen eten honek, izan, hertsiki eduki politikoa du, zuzenean nazioaren askatasunari dagokiona, alegia, jokoan daudenak irlandar herriaren lurraldetasuna eta subiranotasuna baitira. Zatiketa hori salatzen ez da bakarria IRA, baina zatiketa horretatik eratorritako gizarte-ordenari eta honen gainean eratutako erakunde sozio-politikoei uko egiten bai, haren lekukotza, besterik gabe ere, egitura menderatzaileen salataile bihurtzen da. Eamon De Valerak boterea eskuratzen duenean, hau ere ahaleginduko da irredentoak desarmatzen, baina alferrik.

Bigarren aroan (1939-67), Irlandako Errepublikak 1939an legez kanpo jarri zenez geroztik zehazki, bere ekintzak gehienbat Ipar Irlandan burutu zituen, lehen aro batean (1943-43) propaganda-kanpainak sustatuz eta bigarrenean (1956-62) lurralde-zatiketaren ondotik ezarritako muga artifizialen kontrako atentatuak eginez.

Hirugarren aroan, batez ere 1969tik aurrera, hasten da gogorki jotzen, baina Ipar Irlandan. Hain zuzen ere, 1969-71 epealdi bero honetan gertatzen dira Britainiako armadako eta IRAkoen arteko lehen aurrez aurreko zuzenak, alde bakoitza bere hildako eta zaurituekin. Britainiar soldaduek IRAko 6 militante hil zituzten eta 300 lagun atxilotu Belfasten 1969an; orobat, 1972an, britainiar parakaidistek 13 lagun hil zituzten Bogside auzoan. IRAk, bere aldetik, 30 soldadu hil zituzten 1971. urtean. Datu hauek gatazkaren gogortasuna adierazteko balio dute. Baina, garai honetan, metropoliko gobernuak bere aparatu militarren zein neurri politikoen bidez eragindako zapalkuntza sistematikoaz gain, Ulsterren, Alderdi Unionista hegemonikoaren alboan, oraindik hau baino errotikoago, atzerakoiago eta sektarioagoa den alderdi bat sortzen du Ian Paisley artzain protestanteak 1971n, Alderdi Demokratiko Unionista deitzen zaiona, eta protestante hauek, hortxe 1972. urte inguruan, beren banda paramilitarrak antolatzen dituzte, IRAren kontrako gerra zikinean. Hainbat siglaren azpian ezkutatuta (hauen artean, Ulsterren Defentsarako Elkarte, Ulsterren Askatasunerako Borrokalaria, Ulsterreko Boluntarioen Indarra, Esku Gorriaren Komandoak), etxean egindako leherkariz edota etxean dauzkaten armez baliatzen dira, erasotua nor den gehiegi

kontuan hartu gabe. Unionista eskuinenekoenen artean sortu eta garatutako plataforma politiko eta paramilitar hau elementu erabat berria da, garrantzitsua guztiz, ondorengo politika baldintzatuko baitu bi zentzutan: batetik, bi komunitateen arteko gatazka areagotzen duelako eta, bestetik, atzerriko armada okupatzaileari kontrol-arazo berriak sorrarazten dizkiolako. Azken hamarkada hauetan, zehazki 1972-92 epealdian, unionistek hildakoak gehiago dira IRAK eragindakoak baino: hots, % 69a katoliko zibilak, eta % 31a besterik ez protestanteak, hemen sartuz soldaduak eta poliziak.

Komunitate katolikoaren eta protestantearen arteko etsaigoa hain da latza, hain muturrera eramana, datua da, 1970 eta 1980ko hamarkadetan, familia osoak, 15.000 inguru, indarrez aldarazi zituztela leku batetik bestera bi komunitateen etxe-bizitzak lurralde monoetnikoetan bananduta uzteko. Horretarako, Belfasteko auzo herrikoietan horma garai batzuk eraiki zituzten, "bake-hormak" deituak, komunitate bakoitzak bere auzoa izan zezan. Ulsterreko populazioaren % 90 halaxe bizi zen. Bereizkeria hau kaleko bizitzatik espetxeetara ere eraman zen, hauetan ere preso katolikoak eta protestanteak bereiz baitzeuden.

Laugarren aroa 1972. urtetik aurrera hasten da, "ulsterizazioaren" virusak gizarteko elkarbizitza arras gaiztotuz geroztik, alegia, eta honen ezaugarri nagusia da IRA sona handiko atentatuak egiten hasten dela, baina oraingoan Erresuma Batuan bertan, erasoak zuzenean hango interesen, sinboloen eta politikarien kontra zuzenduz. Azken estrategia honek, geroago ikusiko denez, bere emaitzak ekarriko ditu. Izan ere, IRAk bere ekintzak okupazioko irlatik okupatzailearen irlara aldatzen dituenen eta haren ondorioak herritarrek jasaten dituztenean, eraso armatuen arteko indar-korrelazioetan elementu kualitatibo berriak sartzen dira eta estrategia honek, ondorioz, egoera politiko berria dakar, aurreko aro guztietatik desberdina izango dena. Egoera berri honetatik jaioko da bakeari buruzko predikua.

Azken aro honetan, bada, IRA protagonista nagusi gisa tartean dela, hiru fronte irekitzen dira Irlandako arazoan: bata Weminsterrekoa, bestea Dublinekoa eta, azkenik, Belfastekoa. Irlanda birbatu eta independentearen aldeko erresistentziak hiru aurkari horien kontra jokatu beharko du, baina ez bidean etenik izan gabe. IRAren kontrako erreakzioa, beraz, bi frontetatik dator. Nagusia Londresetik, lehenik neurri polizialak eta gero politikoak hartuz. Arriskutsuena, ordea, Ulsterreko unionisten banda paramilitarren lubakitik, hauek jende zibila ukitzen baitute. Jakina, egun talde armatuez hitz egiten denean, askotan zaku berean sartzen dira unionisten talde paramilitar horiek eta IRAko kideak. Baina bistakoa da ez direla bien bortxa-erabilerak inondik inora ere berdintzekoak ez helburu politikoaren ez bitarteko teknikoaren aldetik.

1.4. Bake-prozesuaren ibilaldia

Bake-prozesua gauzatzeari dagokionez, oinarrizko hiruzpalau gizarte-egitate dira kontuan hartu beharrekoak: herri-mugimenduen indartzea, IRAren indartzea, eskuineko alderdi nazionalistaren sorrera eta ulsterizazioaren nazioartekotzea.

Lehenik, ulsterizazioa zergatik eta nola jalgitzen den ikusi eta gero, esateko moduan gaude Ipar Irlandako sistema politikoan erabat huts egiten dutela

eskubide demokratikoen eta jokabide maltzur honen kontra oposizioko indarrak oro (sindikatuak, Alderdi Laboralista, Alderdi Komunista) elkartzen direla 1960-66 epealdian zehar. Indar hauek giza berdintasuna eskatzen dute eta langileria baitan etsagoirik espreski ez piztea. Herri-protesta honen giroan, 1967an hain zuzen, NICRA (*Northern Ireland Civil Right Association*) izeneko mugimendu apolitiko eta laikoa sortu zen, sufragio unibertsala onartzea, salbuespen-egoera kentzea eta hauteskunde-barrutien manipulazioarekin bukatzea eskatuz, eta elkartekoen, eskabide zehatz horiek kaleratzeko, kale-manifestazio bat antolatu zuten, Orange Ordenakoen era basati batez zapaldu zutena. Askatasun demokratikoen aldarrikapen honetan Belfastko Unibertsitateko ikasleek ere parte hartu zuten, *People's Democracy* elkartean bilduz, 1969an diputatu izango den Bernadette Deulin-en gidaritzapean, eta mugimendu honek martxa bat antolatu zuen Belfastetik Derry-ra.

Demokraziaren aldeko borroka, une honetan, osoki herritarra izatera iritsi zen. Jendeak, kalera irtenda, armaz defendatu zituen bere eskubideak. Herri asaldakuntza honen aurrean, 1969ko abuztuaren 14an, Londresko gobernuak bidalita, 5.000 ingeles soldadu sartzen dira Derryko hirian; 1971ko irailean, 12.000 soldadu zeuden Ulsterren IRAko militanteen ehizari ekiteko gertu. Hain zuzen ere, 1969-71 epealdi bero honetan ematen dira Britainia Handiko armadakoen eta IRAkoen arteko lehen buruz buruko zuzenak, alde bakoitza bere hildako eta zaurituekin. Segidan, hurrengo urtetik aurrera, etorriko dira paramilitarren eraso inkontrolatuak, lehen aipatu ditugunak.

Demokraziaren aldeko masa-mugimendu horiek, egia esan, ez zituen IRAk zuzendu, baina, bai, han egon zen Irlandaren nazio-interesak armaz defendatzen. Zeren, eta hau nabarmendu beharreko puntua da, –gurean oinarritzeko–, mugimendu demokratiko horiek ez zuten Irlandaren birbatasunaz hitzño bat ere esan. Deulinen antzera, mugimendu horietako askok, politika instituzionalean sartuz bukatu zuten beren jarduera politikoa.

Bigarrenik, IRAkoek, preso politikoen estatusa eskatuz, Maze-ko espetxean 1980ko urrian hasi eta hurrengo urteko hil berean bukatu zen gose-greba heroi-zitatearen *ictus* hunkigarria barreiatu zuen, egun filmeetan ederki dokumentatuta dagoena. *Aitaren izenean* ikusteko parada izan nuen eta, egia aitortu behar badut, barrunbe osoa mila puskatan hautsita geratu zitzaidan. Iharrausiaren handiak desoseguaren mikatza probarazi zidan. Guztira hamaika presok galdu zuten bizia, horien artean Westminterreko hautagai izendatua izen zen Bobby Sandsek. Gertaera dramatiko honekin, erakunde armatuari hegoak hazi zitzaizkion bai barruan bai atzerrian. Gizarte-bizitzan sakon erroturik dagoen mugimendua denez gero, handik aurrera, harekin nahitaez kontatu beharra dago; edo, bestela esanda, hura gabe ezingo da bake-prozesua abiarazi, gutxiago oraindik irlandar subiranotasunaren bidean aurrera egin.

Hirugarrenik, katolikoen langile-klasearen bestaldean, garai honetan, katolikoen beste sektore batean burgesia berria sortzen da, klase ertainekoa, Belfast eta Derryko auzo aberatsetan. Eta gizarte-klase honetatik ateratzen da 1969an SDLPa (*Alderdi Sozialista Laborista eta Demokrata*), John Hume-k zuzentzen duena. Ideologiaz, errepublikarra eta sozial-demokratikoa dugu, erditik

ezkerrera zubikoa egiten duena. Baina, bestalde, nazionalista autonomista ere bada. Honen froga da harreman onak dituela Dublineko gobernuarekin eta Ipar Irlandako politika, ez Londresetik, bertatik zuzentzearen aldekoa dela. Horregatik, *Direct Rule*-ren kontra agertuko da. Bestalde, estaturik gabeko nazioen etorkizuna oraindik egitear dagoen Europa Batuan ikusten du, zeina, ez orain arte bezala estatu-nazioek, baizik eta erregioek osatua beharko lukete. Haren nazionalismo-eredua, egungo europar esparru berrian, erregionalizazioan aurkitzen da, eskualde naturalen gainean eraikitako batasun politikoetan. Beraz, politika sozialean, Europako alderdi sozialisten homologoa dugu eta politika nazionalean, berriz, europar erregionalista. Geroago aztertuko dugun bezala, alderdi honek lehen mailako protagonismoa jokatuko du Irlandan ireki den nazio-politika berrian.

Laugarrenik, Erresuma Batuaren politika hurbiletik segitu beharrekoa da, bera baita, azken batean, erabaki-guneko hariak goreneko boteretik bilbatzen dituen.

Herri-mugimenduen kale-manifestazioak eta IRAren atentatuak zirela bide, egoera politikoa larriagotuz baitzihoan, jadanik aipatutako neurri polizialak aski ez izaki, 1972ko martxoaren 24an Erresuma Batuko gobernuak, *Direct Rule*-ren bidez, bi urtez ahalmenik gabe utzi zuen unionistek kontrolatzen zuten Stormonteko parlamentua eta Ulsterreko politika zuzenean Londresera eramango da, Ipar Irlandarako estatu-idazkari W. Whitelaw izendatuz. Hurrengo urtean, 1973ko martxoaren 8an, Londreseko gobernuak erreferenduma antolatu zuen Ipar Irlandan. Hemengo hiritarrei Erresuma Batuarekin segitu nahi zuten ala ez galdetzen zitzairen. Protestantek % 57,4ko baiezkorekin erantzun zuten; IRA, Sinn Féin eta SDLP, aldiz, abstenitu egin ziren % 41,4arekin. Eraitza hauen aurrean, ikusirik indarrak aski parekatuak daudela eta oposizioa ezin dela gutxietsi, W. Whitelaw prest agertzen da *Direct Rule*-arekin bukatu eta Irlandako Kontseilua eratzeko, bertan Londres, Dublin eta Ulsterreko bi komunitateen ordezkariak parte hartuz. Urte bereko ekaineko hauteskunderen ondotik, azaroan eraiki zen Ipar Irlandako Biltzarra, Brian Faulkner unionista moderatua botere exekutiboko lehendakari eta SDLPko Gerry Fitt lehendakariorde izendatuak izan zirelarik; abenduan, berriz, Londresen eta Dublinen arteko harremanak finkatzen zituen Sunningdale-ko akordioak Irlandako Kontseilua sortu zuen. Baina martxan jartzen den gobernu-mekanismo honek oso iraupen laburra izango du, zeren eta Westminstererako izendatutako hamaika diputatu unionistek, beren ordezkari Faulkner-en agintaritzza gaindituz, Sunningdale-ko akordioaren aurka bozkatzen dute eta, ondorioz, Londresen asmatutako proiektua hankaz gora geratzen da. Protestante unionistek, antza, Paisley-ren presioz hartu bide zuten erabaki hori, Dublineko gobernuak sudurra sobera sartuko zuela beldur omen zirelako. Konplot honek Faulknerrek dimititzea eta Londresko gobernuak berriro *Direct Rule*-aren sistema ezartzea dakar, gaur arte iraungo duena.

Hemen galdetu behar dena da: bat, ea zein neurritan datozen bat britainiarren interesak eta ipar irlandar unionistenak; bi, baldin ados ez badatoz, britainiar estatuak zergatik ematen duen amore Belfasten gehiengo baina Westminsterren gutxiengo den diputatu unionisten aurrean. Azken batean, ez dezagun ahantz, britainiar estatua dela Ipar Irlanda kolonizaturik daukana eta hango kolono gutxi-asko esanekoen laguntzaz baliatzen dela irlandar nazionalistak azpian edukitzeko. Kaltetuak, nolana ere, katoliko nazionalistak dira.

2. Stormonteko akordioaren edukia

Irlandak ba ote du irtenbiderik? Galdera honekin bukatzen nuen *Zabal*-eko 1975eko artikulua hura. Jakinarene gainean egonda atzerritik etorritako kolono jendea –kolonizazioaren obra nagusia– ez zela integratu Ipar Irlandan eta, britainiar unionisten aldetik, traba gaitzak ikusten nituen Irlanda bat-berean txerta zitezten. Eta erresistentziari zegokionez, berriz, hauxe nioen soilki: «IRA iraultzan aurrera doa».

Hogeita hiru urte pasa eta gero, 1998ko apirilaren 10ean, Belfasteko Stormonteko jauregian bake-akordioa izenpetzen dute Erresuma Batuko eta Irlandako gobernu-ordezkariek eta Ipar Irlandako alderdi politikoek. Akordio honen edukian, gure ustez, jarraiko lau puntu hauek dira garrantzitsuenak⁸:

2.1. Autodeterminatzeko eskubidearen onarpen baldintzatua

Akordioaren hasieran, lehen puntuan, eskubide horri buruzko printzipioa onartzen da, baina horren aplikazioa zehaztasun osoz mugatua dator testuan eta komeni da puntuz puntu argitzea:

a) Ipar Irlandako hiritarren gehiengoari dagokio askatasun osoz bere etorkizuna hautatzea, edota, orain bezala, Erresuma Batukoa izaten segituz, edota Irlanda batu eta subiranokoa izatera pasatuz.

b) Irlandako irlako herritarrek bakarrik dute autodeterminatzeko beren eskubidea aplikatzeko ahalmena, zeinaren prozeduran, batetik, Iparraldekoen zein Hegoaldekoen adostasuna lortu beharko den eta, bestetik, Irlanda batua sortu ahal izateko, ezinbestekoa izango den Ipar Irlandako gehiengoak hala nahi izatea.

c) Autodeterminatzeko eskubidea zazpi urtez behin gauzatu ahal izango da.

d) Baldin Irlandako hiritarrek aipatutako baldintzen arabera erabaki balezate Irlanda batua eraikitzea, Britainiako eta Irlandako gobernuak haien erabakia onartzera eta, horretarako, behar diren lege-aldaketak egitera behartuak leudeke.

e) Ipar Irlandako hiritar guztiek eskubidea dute beren buruak irlandar edo britainiar gisa azaltzeko eta halakotzat onartuak izateko, edota irlandar eta britainiar nazionalitatearekin segitzeko, baita Ipar Irlanda Erresuma Batukoa izatetik Irlanda batukoa izatera pasatuko litzatekeen kasuan ere.

Nire ustez, akordioaren ahuleziarik nabarmenena hasierako printzipio hauetan datza. Autodeterminatzeko eskubidea onartzen da, bai, baina arras baldintzatua dago. Baldintzatua da, besteak beste, bi alderditatik begiratuta.

Lehenik, Irlandako herriaren lurraldetasun-printzipioa ez da aintzakotzat hartzen. Eta lurraldetasuna, nazioaren osaketari dagokionez, funtsezko elementua da, arazo nazionala tartekatzen den kasuetan, negoziatzeko. Hemen, oraindik 1998an, 1921eko konkista-espirituarekin segitzen da. Irlandak berak, bere osotasunean, erabaki beharko zukeen bere etorkizuna, ez Ipar Irlandak. Baina

8. Akordio honi buruzko xehetasunak, *The Northern Ireland multi-party talks, 1996-1998; and the way ahead The Good Friday Agreement, April 1998* izeneko txostenean datoz.

azken hitza, akordio honetan, Erresuma Batuko hiritar sentitzen den gehiengo protestantearen eskuetan geratzen da. Norbaitek uste lezake, berriki irakurri dudan bezala⁹, akordioan aurreikusten diren gobernuen arteko harremanen bidez berrosa daitekeela zatiturik geratzen den irlandar lurraldetasuna. Integrazioa inoiz etortzekotan, katolikoen hazkunde demografikoaren edota, zailago dena, protestanteen jarrera-aldaketaren bidez bakarrik etor liteke. Nik, zinez, optimismo gehiegi ikusten dut hor. Euskal estatutuzaleek ere, Gernikako Estatutuak ireki zuen bideari euforiaz gainezka ekin zioten haiek, Nafarroarentzat lehiatilik irekita geratzen zirela baieztatzen zuten, su eta fu, baina ez dakit gaur hainbeste esatera ausartuko lirakeen.

Bigarrenik, eskubide hau izanik funtsean herrien eskubide kolektiboetara dagokiena, hemen, horren aplikazioetara etortzean, konkistaren bidez lortutako eskubide indibidualen esaneko bihurtzen da. Eta nola konkistatzaile izan zena, eta egun izanez segitzen duena, britainiar estatua den Ipar Irlandan, hemengo hiritar britainiarrak, bertan gehiengo osatu ala ez, kasu bietan britainiar izateko eskubide pertsonalarekin geratzen dira.

Eta bi puntu hauek, jakina, irtenbide arrakastatsuen gailurra –baldin Irlanda batuaren nazio-askapenarena halakotzat hartzen bada– haste-hastetik ia lortezina egiten dute. Lortezina, noski, nola eta unionisten mundu sinbolikoa, hots, beren oraingo britainiar nortasunaren ikurra errotik aldatzen ez den.

Irlandako eredu hau gurean aplikatzekotan, *mutatis mutandis*, Euskal Herriak orain bezala bi estatutan eta hiru lurralde-administrazioetan zatituta jarraituko luke; ez Euskal Herri osoak, baizik eta berori osatzen duten administrazio horietako bakoitzak gauzatu beharko luke autodeterminatzeko eskubidea; horietako bakoitzean gehiengoak Euskal Herri baturako borondatea agertuko balu, orduan ere horietako hiritarrei espainola edo frantsesa izateko eskubidea legokieke.

Sakoneko arazoa, azken batean, autodeterminatzeko eskubidearen subjektua zein deien mugatzean datza. Irlandaren kasuan, Hegoaldeko estatua bezain subjektua da Erresuma Batukoa eta, hedaduraz, Ipar Irlandakoa ere badena. Puntu honetantxe oinarritzen dira, hain zuzen, akordioaren erakina eta berori osatzeko aurreikusten diren izaki juridiko guztiak: hots, instituzio-motak, estatuartekoak zein gobernuartekoak, jarraian zehaztuko ditugunak.

2.2. Esparru juridiko berri baten ezarpena

Arestian esan bezala, autodeterminatzeko eskubidea bideratu bitartean, zenbait instituzio politiko berri eraikitzea aurreikusten da, hauen artean jarraiko hauek¹⁰: a) Ipar Irlandako Batzarra, betearazteko eta legegintzako eskuduntzak izango dituena; b) Ipar Irlandako eta Hegoaldeko Ministro Kontseilua, Ipar Irlandako politikaren eta Irlandako gobernuaren erantzukizuna duten guztiak elkarrekin lanean jartzeko ardura duena; c) Britainia eta Ipar Irlandako Kontseilua, bi irltako hiritarren arteko harreman guztien erabateko garapen harmoniatsua sustatuko

9. Intxaurreaga, S., "Stormont, un acuerdo ilusionante para Euskal Herria", *Egin*, 1998-5-21, 9 or.

10. Jatorrizko testutik zati batzuk euskaratuta datoz *Elkarri* aldizkarian, Especial Irlanda del Norte, 38 zk., maiatza 98, 10-11 or.

duena; d) Britainia eta Irlandako gobernuen arteko konferentzia, akordio horri darizkion era guztietako harremanak landuko dituena.

Ipar Irlandako Batzarrari dagokionez, honen funtzionamenduan bertako alderdi guztien partaidetza eta ordekaritza ziurtatua izan dadin, erabaki garrantzitsuak hartzeko orduan, bertan batzartuta daudenen % 60ko gehiengo sendoa eta, orobat, parlamentu-talde unionistetako eta nazionalistetako partaideen % 40 bederen lortzea eskatzen da.

2.3. Talde paramilitarren dekomisioa eta presoek askatzea

Era berean, akordio horretan aurrerantzean giza eskubideak onartuak izango direla baieztatzen da, hor sartuz norberak bere ideia politikoak izateko duen askatasuna eta helburu politiko eta nazionalak lortzeko bide demokratikoak erabiltzea; era berean, bi urteko epean arma paramilitar guztien dekomisioa egitea berrestean da; halaber, logika berean, su-etena gordetzen duten presoak bi urteko epean askatzea agintzen da.

Helburu nagusia, bistan da, talde armatu guztiak desarmatzea da, unionisten eta nazionalisten kausak bereizi gabe maila berean jarriz. Testuak, “paramilitary groups” deitzen dituen biak. Zerbait oinarritzkoa ahazten edo nahasten da hemen deliberatuki, eta da, gaztaka funtsean arazo nazionalak markatzen duen arazo politiko batean erresistentzia eta kontraerresistentzia ezin direla ez berdin tratatu ez berdin baloratu, izaeraz baitaude kontrajarriak bakoitzaren xede politikoak, nahiz armen erabilera batera duten.

Erresuma Batuko britainiar nazionalistek eta Ipar Irlandan horien sukurtsalista diren alderdi unionistek interesatzen zaien bakarra IRAkoak desarmatzea da. Honen seinale aski adierazgarria da, akordioa plazaratu orduko, unionisten alderdikoak Sinn Féineko buruzagiei IRAk bere armak entrega ditzan eska eta eska ari zaizkiela. Badirudi insistentzia honek borroka armatuarekin behingoz bukatzea salatzen duela. Haren erabateko porrota –defuntzioa esango genukeena–, ahalik eta arinen aldarrikatu eta izenpetu nahi da. PSE-EEko Nicolas Redondo, Jose Maria Benegas, Francisco Llera eta Mario Onaindia izan berriak dira Belfast eta Londresen akordioak sortu duen egoera zein den jakiteko asmoz eta, ETako kide-ohia, handik itzultzean, IRAkoen “terrorismoak” –hau da darabilen hitza– akordioaren garapena oztopatuko ote duen edo, beldur zen, zeren eta, protestanteen talde paramilitarrak treguan dauden bitartean, katolikoek zatituta jarraitzen dute eta hortik sor daiteke bi komunitate horien arteko mesfidantza¹¹. Hau esatean, noski, Mario Onaindiak IRA, INLA eta Jarraipen Kontseilua izeneko talde armatu nazionalistak zeuzkan gogoan. Agidanez, IRA “terrorista” hango zein hemengo alderdi estatualista guztientzat obsesioa da. Zernahi gertatuko delarik ere, erruduna bilatu behar baita, hura IRA izango da. Arrazoi historikoa izan ala ez, unean uneko gehiengo politikoaren arrazoiak aurrera egin dezan, ezinbesteko lehen baldintza gisa, erresistentzia armatuaren bukaera bermatu behar da.

11. «Hemen ere gerta liteke talde terroristek porrota eragitea. Ipar Irlandan talde terrorista protestanteak treguan daude, baina hiru talde terrorista katolikoek artean hausturak izan dira eta haiek protestanteen eta katolikoek artean konfiantza eza sortzeko izan dezaketen eragina ezkorra da» (*Egunkaria*, 1998-5-28, 10 or.).

Horretara dator arma ilegalen dekomisioarena. Era berean, Ipar Irlandan kokaturik dauden Erresuma Batuko Indar Armatuaren eginkizunak eta kopurua gutxitzea sartzen da. IRA desagertzea behartuta, britainiar armada geratzen da Ipar Irlandako gizarte-ordenaren bermatzaile bakar.

2.4. Ipar Irlanda berrantolatzeke herri-kontsulten egutegia

Akordio honetan aurreikusten den plangintza gauzatzen joateko, testuan bertan egutegi zehatza finkatzen da: 1998ko maiatzaren 22an, Ipar Irlandan eta Hegoaldean, akordioa berresteko erreferenduma egingo da. Honen emaitzak jadanik jasoak dira: Ipar Irlandako sei konderrietan, % 71,12a berrestearen aldekoak eta Irlandako Errepublikan, berriz, % 94,39a. Honenbestez, gehiengo absolutu honekin, akordioa aurrera doa eta ekainaren 25ean Ipar Irlandako Batzarra aukeratzeko bozketak egingo dira.

Akordio horrekin, prozesu berri bati ematen zaio hasiera; hori bai, ikusi egin beharko da prozesu honen segida nolakoa den.

3. Irlandatik Euskal Herrira

Euskal arazoak Irlandakoarekin baduela eta ez duela antzik oihuka, komunikabideetan eztabaida bitsa dariola dabil. Herri baten historia ezinbestez partikularra izaten baita, normala da hainbat kidetasunen artean elementu desberdinik ere izatea, baita nazio-arazoari buruzko zenbait puntutan ere. Ez dagokigu hemen zertan datozen bat eta zertan ez zehaztea, honek beste azterketa bat eskatzen duelako. Gogoeta batzuk bakarrik aurreratuko ditut.

3.1. Etorkizunerako galtzada berria

Azken hogeitaz urteotan gertatutakoa ikusita, badaukat konbentzimendu sakon bat, gero eta errotuagoa dena nire baitan, eta da euskal nazionalistok urrezko denbora galdu dugula geure arteko kalapitetan eta, hain zuzen, euskal nazionalismoari darizkion kontraesanen ur gazietatik edanda elikatu dela nazionalismo espainolistaren bits pozoindua. Ajuria Eneko mahai autonomikotik Ermuako espiritu espainolistara egindako bidaia laburrak gauza asko argitu ditu gure artean.

Zola hareatsuaren gainean egindako eraikina lehen haize-boladak botatzen baitu lurrera, Euskal Herriaren nazio-proiektuak egiazki aurrera egin dezan, euskal politikak etorkizunerako bere galtzada berria lur tinkoan finkatuta egin beharra dago. Galtzadako harriak, handik pasatzean kolokarik egin ez dezan eta luzaro iraun, bere lekua behar du. Erromatarrek lurralde berriak konkistatu eta konkistatua zaintzeko egin zituzten. Hemen justu alderantzizko galtzada egin nahi da: hots, deskonkistatik nazio-askapenerako norabidea eramango duena eta, herri-adostasunaren erremintez baliatuz, justiziaren zolan eraiki beharko dena. Hala ez izatera, alferrik gabiltza, bakearen gurdia lehen itzulian irauliko da eta. Ez du merezi historiari eztenka aritzeak, itsumen honek autozauritzea besterik ez baitakar.

3.1.1. Bada lehen puntu bat nazionalismo iraultzailearen inguruan asko eztabaidatu, bai, baina, beharbada, inoiz behar bezala argitu gabe geratu izan dena. Gurean esaten zen bezala, arazo soziala eta nazionala baldin txanponaren bi aurpegiak bezala badira, nola elkartzen dira bi alderdi horiek praktika politi-

koan? Iraultza sozialistak gauzatu izan diren kasuetan, funtsean koloni herrietan, marxismo klasikoak garbi zeukan fronte nazionalaren estrategia, zeinaren arabera, lehenik, atzerriko etsai okupatzailea uxatu behar baitzen, horretarako bertako burgesia nazionalarekin ere elkartzuz, eta ondoren, atzerriko kolonialisten garbiketa egin eta gero, ekiten zitzaion etxea barrutik berritzeko plangintzari.

Eskema honek ez du funtzionatu izan Mendebaldeko European. Zergatik? Iraultza burgesak eraikitako estatu zahar eta berrien izaera multinazionala, ondoko iraultza sozialistak, auzitan jarri ordez, osoki onartu eta berretsi zuelako. Buruzagi marxisten obra dugu estatu horien gain isuritako zentralismo demokratikoaren asmakizuna. Zentzu honetan, estatu sozialistek estatu burgesen egitura zentralizatua sendotu besterik ez dute egin. Horregatik, nazionalismo iraultzaileak errebindikazio sozialak eta nazionalak borroka-estrategia berean txertatu nahi izan zituenean –1968ko Maiatzaren ondoren marxismoaren uholdea zabaldu zenean, hain zuzen–, sostengu intelektualik gabe geratu zen, bakarrik eta babesik gabe, Irlandakoa eta Euskal Herrikoa ez baitziren izaeraz koloni herrien artean sartze-koak. Nazionalismo honi etena alde biotatik etorri zitzaion: ezkerretik, internazionalismoaren mistikak nazionalisten sektore bat alderdi estataletan txertatuta utzi zuelako, eta, eskuinetik, indar nazionalisten artean fronte nazionala eraiki ahal izan ez zelako. Orduko okerrak oraindik gaur egun ere bapo ordaintzen ari gara.

Gaur argiago ageri da, jakina, klasearteko arazoak eta nazioartekoak hertsiki erlazonaturik dauden arren, ez direla izaera bereko gatatzka-guneak, ez diren bezala generoartekoak, ezta hizkuntzartekoak ere. Ekologiari berari ere bere espezifikotasuna aitortzen zaio. Beraz, errebindikazio-mota autonomoen aurrean aurkitzen gara teoriaren mailan bezala praktikoan ere. Puntu honetan, kostata halere, zerbait aurreratu da.

Honekin guztiarekin adierazi nahi dena da, Irlandan planteatzen den arazoa, funtsean, arazo nazionala dela, 1921eko lurralde-zatiketarekin erabakitzeke geratu zena, eta harrezkero sortutako *status quo*-ak, honek gizarte-errealitate berri baten aurpegi sozio-politiko eta kulturala aurkezten duenez, aterabide egoki eta zuzen baten giltzarekin egitea biziki zailtzen duela. Era berean, Euskal Herrian ere, lurralde-batasunaren oinarriko errebindikazioa da, naziotasunaren ezinbesteko osagaia, eta, alde horretatik, Irlanda baturako bidean Ipar Irlandak jokatzen duen papera jokatzen dute gurean Nafarroak eta Iparraldeak.

3.1.2. Irlandakoa askok erlijio-arazoa dela azaldu izan dute. Prentsak, gehienetan, hangoa soilki katolikoen eta protestanteen arteko gatatzka baillitza agertzeko joera azaldu izan du. Esandakoak gogoan hartu badira, honezkero ohartuko zen irakurlea, hango arazoa, haste-hastetik erlijioen arteko gatatzka-tradizioan oinarrituta etorri bada ere, erlijiosoa baino areago, politikoa dela, zeinean faktore ekonomikoen eta nazionalen eragina ukazina den.

Zabal-eko artikuluan ahalegindu ginen hango arazo nazionallean erlijioari eta politikari dagokiena bereizten. Erlijio-taldeak bakarka hartuta, % 34,9arekin katolikoak nagusitzen badira ere 1961ean, zazpi-zortzi adarretan zatiturik dauden protestanteak bat eginda, praktikan hauek dute gehiengoa eta hauen jarrera politikoa, orokorrean, arras Britainia Handiaren aldekoa izango da.

Erljio-arazoak egun zer eragin ote du Irlandako nazio-arazoan? Esan bezala, galdera hau beti bizirik egon da, agian orduan biziago orain baino. Oraindik batzuek Irlandakoa erljio-kontua dela uste dute. Zalantzarik ez da, Ipar Irlandaren kasuan bederen, erljio-atxikipenak baduela bere sustrai soziala ere, bertako gizarteak komunitate erlijiosoan arabera antolatuta funtzionatzen baitu. Alde horretatik, nola hizkuntzak galdua duen neurri handi-handi batean herri-nortasunaren zeinu bereizgarria, baliteke, oso posible da, bi komunitateen identitateak maila erlijiosoan adieraztea. Nolanahi ere, arestian esan bezala, gatazkaren sakonean dauden faktoreak, determinatzaileenak alegia, ez dira erlijiosoak, sozio-politikoak baizik. Interes ekonomikoak eta nazionalak daude azpian. *Zabal*-en interpretazio hau aurreratzen duen eta egun ere ez dut iritziz aldatzeko datu berririk aurkitzen. Dena den, adierazgarria da Adams eta Humeren arteko adiskidantzan bitartekari-lana elizgizon katoliko batek egitea, ez politikari laiko batek. Honek elizak bere itzala baduela adierazi bide du.

3.2. Negoziaketarako gutxienezko puntuak

Negoziaketak direla bide, Irlandaren inguruan hedatu berri den diskurtsoa, izan, bakearena da. Distentsio-giroak ekarri beharrekoa dugu hau, gizarte-adostasunaren fruitu gisa. Baina beldur naiz guztiok amesten dugun mezu hori ez ote garen sobera pontifikatzen ari, ez ote den haren inguruan parafernalia gehiegi eraikitzen ari. Diodana kontrastatzeko datu zehatzik ez badut ere –horrelakoak aurkitzea zaila delako–, aurreiritzien ehizan ibili beharrik gabe, zenbait elementu susmagarriren arrastoa hartu ezinik ez dago.

Bakearen altzora, honen mezulari izateko xede espezifikoarekin, hainbat gizarte-mugimendu agertu ziren, ez dakigu zein erakundek finantzatuta. Horietako zenbaiten –agian gehienen– kezka nagusia herritarrak kalean ETaren kontra jai-kiaraztea zen, ahoan bakea aldarrikatuz eta barruan –horko sektore estatalistetan garbiki–, espainolismorik atzerakoiena ezkutatuz. Hauek eraman zuten biolentoen eta demokraten arteko borroka kalera, denbora luzez. Espaloi batean demokrata bakezaleak, bestean biolento faxistak. Diskurtso dikotomiko honek ederki funtzionatu zuen, beti ere medioen laguntza handiarekin, onak eta gaiztoak bereiziz, nazionalistak zentzudunen eta buruberoen kategorietan sailkatuz, harik eta Ermuako espirituak, zerion espainolismo-kutsu nabarmenegiarengatik, hankaz gora bota zuen arte asmakizun makiaveliko hori. Harrezkero, administrazio autonomikoetan txandako alderdi estatalekin –kasu honetan, PPrekin– gobernatzen duten euskal nazionalistak nazionalismo espainolari amore eman ala etxera gehiago begiratzen hasi, hautatu beharrean aurkitu dira. Hortik sortua da Jose Antonio Ardantzaren Ajuria Eneko Txostena, estatalistek blokeatuta utzi dutena. Espainiak erabat hipotekaturik dauka Gasteizko politika, gobernuan bezala parlamentuan. Non edukiko, eta nazionalistek gehiengo osatzen duten lurraldean.

Nafarroakoan ere berdin gertatzen da, baina hemen, Ipar Irlandako hauteskunde-maparen antzera, indar-korrelazioak aldaduta, estatu-sukurtsalisten esaneko “navarristek” bloke espainolista hegemonikoa, txit trinkoa, osatzen baitute. Bere garaian Europako ardatz izandako Nafarroako erresuma zaharra, zeinak Iparraldeko lurraldearekin ere harreman historiko garrantzitsuak izan dituen eta harekin muga naturala osatzen duen, kostaldeko probintzietan merkataritzaren eta indus-

trigintzaren inguruan garatutako ekonomi jarduerak eta hazkunde demografikoak euskal politikaren botere-gune izatetik desplazatu egin dute eta egun, EA Eren egoitza Gasteizen aurkitzen den arren, botere faktikoaren epizentroa egun, Bilbon dago, non bertako oligarkiak eta hainbat aro historikotan bertara inmigratutako langile-kopuru masiboak espainolismoaren hazia erein zuten, eskuinetik adina ezkerretik. Euskal oligarkiak euskal nazionalismoa beti etsai izan badu, sozialismoak ere ez du gutxiago izan, nahiz frankismo garaiko errepublikar frontean aliatuak izan. Baina orduan ere, ez ditzagun gauzak nahas, Eusko Jaurlaritzaren politika izan zen Espainian integratu zena, ez alderantziz.

Azken mende hauetan Bilbo euskal mundu politiko eta ekonomikoaren erabaki-gune izateaz gain, kulturaren aldetik ere berak eraman izan du, eta darama, euskal mundu sinbolikoaren lema. Euskal Herriak bere unibertsitaterik ez zuenean, oligarkiak han eraiki zuen jesuiten Deustuko Unibertsitatea, geroago Nafarroako oligarkiak Iruñean Opus Dei-rena bezala. Bi oligarkien interesak esku bertsutik doaz. Berrikitan, oraingoan PNVren ekimenez, Ibaizabaleko *Euskalduna* ontzizintzako fabrika-hondakinen gainean, Guggenheim Museoa altxatu da, hasieran eztabaidagarri eta egun miresgarri gertatu dena. Baina kultura akademiko eta artistiko honek, hau guztia bere izaera unibertsalaren zentzurik positiboenean hartuta ere, ia osoki erdaraz, gaztelaniaz alegia, funtzionatzen du. Hau esan beharra daukagu euskal kulturaren gunea geure hizkuntzan jartzen dugunok.

3.2.1. Horregatik, esanez gatozenak oinarritzat hartuta, bake-prozesuari inoiz ekin behar bazaio, elkarrizketan ezingo dira alboratu puntu hauek:

– Euskal Herri zatiitu eta desornodunduaren nazio-eraikuntzaren plangintza bateratu eta adostua. Esan bezala, nola egun Hegoaldeko Euskal Herria bi administrazio autonomikoetan zatiturik dagoen eta berorietan nola gaztelania nagusitzen den, euskal politikagintzaren muina diren bi elementu nagusi daude arrisku bizian: hots, lurraldetasuna eta euskara. Gaur arazoa ez da Nafarroa bakarrik, edo UAren Araba, baita Bilbo ere. Eta, batez ere, azken hau da, horko interes ekonomiko eta politikoek Espainiari loturik segitzen duten neurrian.

– Langabeziak eta droga-mendekotasunak modu anormal batez erasaten duten Euskal Herri desorekatua sozialki –gizarte zibilaren oinarrietatik abiatuta, alegia– demokratizatzeko mekanismo politikoen saneatzea, zeinetan herritarren zuzeneko partaidetza izanen litzateke berme nagusia. Gizarte-berdintasunean oinarritzen ez den demokraziak ez du zentzurik. Horregatik, justizia sozial eta politikoari ihes egin nahiko liokeen bake-prozesuaren dinamikak, oso epe laburrera, porrot egingo du eta, berriro, lehengora itzuliko gara. Honekin esan nahi dena da, batetik, herritar guztien interesek eta balioek egiazki ordezkatuak egon behar dutela errejimen demokratiko batean eta, bestetik, eskubide indibidualak ez ezik, kolektiboak ere badirela, hauen artean, besteak beste, hezkuntzarakoa, lanerakoa eta, batik bat, honek gurean duen garrantziagatik, autodeterminatzekoa.

Badira, beraz, gurean negoziatzekoak ez diren puntu batzuk: lurraldetasuna, hizkuntza eta autodeterminatzeko eskubidea. Printzipio mailan, giza eskubideak ezin badira zauritu bortxa fisikoa erabiliz, arrazoi beragatik errejimen demokratiko batek ezin ditu eskubide kolektiboak gaitzetsi. Herria bera da eskubide kolektiboan lehen subjektua, ez estatua. Euskal presoan aldeko errebindikazioak egiteko,

bereziki azkenaldiko kanpaina hauetan, giza eskubideen filosofia inbokatu izan da, dagozkien eskubide batzuk errespetatzen eta onartzen ez zaizkielako. Bego, preso sozialen kolektiboa ere hor dago eta. Baina preso politikoen artean bereizkeria sistematikoa zein kolektibok jasaten duen begiratzen bada, zalantzarik ez da hor ETako kideak daudela, eta hauentzat eskubide indibidualak adina pisu dute herri-eskubideek. Eskubide kolektiborik ez dago indibidualik gabe, ezta alderantziz ere, are gutxiago oraindik, gure herrian bezala, nazio-arazoa denean gatazkarik handiena dakarrena. Euskal pentsamenduak, bada, berreskuratu beharra dauka eskubide indibidualen eta kolektiboen arteko sintesi harmoniatsua, gaurko diskurtso politikoetan falta dena.

Horregatik, arazoa ez da bakea bai ala ez, hau edozein preziotan erositia. Lehen, hildakoentzako errespetu guztiarekin, hilerrietako bakerik ez genuela nahi esaten genuen eta mundu antifrankista guztiak ulertzen zuen hizkuntza hori. Gaur, frankismorik gabe, baina haren soroan hazitako Espainia liberalduaren landare berriak Autonomien Estatuak saldu digu, horren barruan Euskal Herri zatituari bere lekutxoak eginez. Eta bakerako deiak, hain zuzen, talaiak horretatik egiten dira. Kontua da euskal arazoa ez dela frankismoari dagokion zerbait, nazio-arazo historikoa baizik, zeinetan aurrez aurre Espainiaren eta Euskal Herriaren kontzeptuak aurkitzen diren. Beraz, bi herri, bi nazio, bi gizarte-proiektu daude hor jokoan. Laburki esanda: estatuaren edukia bera asko aldatzen ari bada ere, oraindik, haren antolakuntza ordezkaria izan dadin arte, estatu-arazoa da tartean dagoena. Muga ekonomiko eta kulturalak gaindituz doazen garai hauetan, Euskal Herriak berak ikusi behar du bere proiektu nazionala nola txertatuko den European.

Bakearen aldeko herri-mugimenduetara etorrira, Elkarrik hasieran bere lana ongi bete zuela iruditzen zait espainolismoaren altzoan perretxikoak bezala sortu ziren bake-taldeak neutralitzen. Zetorren girotik etorrira, onartua zeukan auto-determinatzeko eskubideak bere lekua behar zuela errejimen demokratiko batean. Eskubide hori onartua izan zedin ahalegindu zen. Azkenaldiotan Espainiako Konstituzioko Lehen Xedapen Gehigarrian, Nafarroa eta EAERI buruz diharduen artikuluetan¹², zehazki, Euskal Herriarentzat irtenbide bat bilatu nahia ikusi dugu, horretarako abiapuntutzat estatu espainoleko indar politiko guztien artean lortutako adostasuna hartuz¹³. Oinarri sozialik gabeko globo hanpatu baten aurrean gaudelakoan nago. Espainian egositako pakto sozial horretan ez du lekurik euskal nazio-gintzak. Alternatiba ez da bakea ala bortxa, bakea askapen nazionalerako bide praktikoa baizik. Alde horretatik, Irlandan ireki den bake-prozesuak zer eman dezakeen oraindik ikustear dago. Dena den, adi egotekoa da.

12. «Lehen Xedapen Gehigarria, Konstituzio guztian, Nafarroa eta Euskal Autonomia Elkarteak batera heltzen dituen erreferentzia bakarra da. Tratamendu bateratu hau bi komunitateak maila berdinean partekatuz egiten da. Eskubide Historikoak, gainera, elkarriketa, hitzarmen eta itun tradizio baten erakusle dira. Hitzarmenean oinarritutako izaera honek eta bere tratamendu partekatutako egungo disensoak eraldatzeko erabilgarritasun handia eskaintzen du» (Elkarri: *Lege proposamena*, IV. aurrekaria, Laugarren zirriborroa, 1997ko azaroa).

13. «Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarriaren aukerei buruzko akordio politiko bat lortzeko hipotesiak abantailak eskaintzen ditu ikuspegi politiko eta demokratiko batetik ere. Egungo egoeraren desblokeoa eta gatazkaren irtenbide eta eraldaketa demokratikorako prozesu baten hastapena adieraziko luke. Azkenik, politikatik abiatutik, politikaren garaipena adieraziko luke, gizarte demokratiko baten printzipio eta baloreei buruzko oinarritzko kontsentsua errazterakoan» (Ibid., VIII. aurrekaria).

3.2.2. Baina Irlandan, nazio-proiektu baten funtsezko hegi batek, hizkuntza-renak zehazki, badirudi jada galdua edo galduxea duela bere borroka. Eta zerbaitetan Irlandako esperientzia ez bazaigu eredugarri izan behar, hango elebitasunari buruzko plangintzak ez luke izan behar.

Irlandako Errepublikak bi hizkuntza dauzka ofizialtzat: irlandera eta ingelesa. Zer gertatu da lekuko hizkuntzarekin? Egia esan, irlandararen egoeraz ezer gutxi genioen *Zabal*-en¹⁴, orduan ez bainuen datu zehatzik eskaini; *Jakin*-en 1977an argitaratutako lanetik hartuta doazkizu jarraiko hauek¹⁵: hiru milioiren bat biztanle dituen Irlandako Errepublikan, ingelesa bakarrik dakitenak % 73a dira. Hau esanda, pentsa daiteke, beste % 27 irlandera dakitenak eta eguneroko bizitzan erabiltzen dutenak direla. Hala pentsatzea, ordea, iruzur hutsa izango litzateke, zeren eta, Txillardegik¹⁶ zehazten duen bezala, populazioaren % 6a bakarrik baita irlandaraz edo gaelieraz mintzatzeko gauza. Hara hor errealitatea bere gordinean: Irlandako gizarte-bizitza ingelesez egiten da. Askok, irlandararen bilakabidea ikusita, antzeko etorkizuna iragarri izan diote euskarari. Ez dut uste bien egoera sozio-linguistikoak berdintzekoak direnik, ezta konparatzekoak ere, eta are gutxiago oraindik hango Administrazioaren hizkuntz politika eredutzat hartzekoa denik. Hangoak porrot egin du. Ez gara nor zergatik egiten duen esateko. Izan daiteke hango klase politikoak Irlanda gaeliko batean sinetsi izan ez duelako. Agian.

3.2.3. Bistakoak dira Ipar Irlandako alderdi nazionalisten harremanek ekarri dituzten onurak, bake-prozesurako motore izan direnak. Mugatuta dugu gutxi-asko Ipar Irlandako burgesia katolikoa ordezkatzeko duen eskuineko nazionalismo moderatuaren irudia. Zalantzarik ez da, prentsak zabalduko datu publikoa delako, alderdi honek, ezkerreko nazionalismoarekin batera, kuntzarena egin duela bake-rako negoziaketan. Askok diote John Humeren eta Gerry Adamsen arteko hurbil-keta oinarritzeko abiapuntua izan zela elkarrizketza politikoak bideratzen hasteko orduan eta, hauen ekimenik gabe, irlandar arazoaren konponbiderako politikariek agertutako plangintza formalen gurdiak –teorian asmo onez beteak, baina praktikan interes kontrajarriez beteagoak– ez zuela aurrera egingo.

Nazio menderatuen nazioarteko politikan, berriz, euskal politikari dagokionez, PNVrekin baditu harremanak. Era berean, baita Sinn Féinek HBrekin. Osotara bat etorri ala ez, ideologi kidetasunik eta interes komunik badutela adierazten digute eskuineko zein ezkerreko nazionalista horiek. Baldin hango nazionalistak gutxienezko puntuak adostera iritsi badira, galdetzekoa da, arrazoi guztiarekin, ea euskal nazionalisten artean zerk huts egiten duen han bideratu den bake-prozesuaren antzekorik hemen mami ez dadin. Agian buruzagien arteko trikimiki pertsonalak? Agian herri soilari ezkututzen zaizkion egiturazko arazoak? Agian biak batera?

14. Bertan hauxe genioen: «Kultur alorrean ere hizkuntzaren aldeko gobernu-promesak aho-betetzkoak izan ziren, baina praktikan ez da gauza haundirik egin. Egin dena, berriz, Gaelic League batasunari zor zaio. Gaelic mintzatzeko duen lekuko jendea 4tik 1 bakarrik da. Arras guti. Hizkuntza eskolan irakatsi arren gero hartaz ofizialki baliatzen ez bada, eguneroko kale-bizitzan fite asko hilko da. Eta eskolan anglesa bakarrik irakasten bada, Ipar Irlandan den bezala, orduan okerrago oraindik» (Iztueta 1975: 26).

15. Iztueta 1975: 75.

16. "Hizkuntz problemaren tratamendua beste erresumetan", Askoren artean: *Euskararen liburu zuria*, Euskaltzaindia/Siadeco, 1978, 570 or.

Nolanahi ere, erantzun posible guztiak pisu handikoak izan arren, ezin ukatuko da heldutasun eza nabari ageri dela gurean. Han borroka armatuarena ez da aitzakia izan. Hemen ere ez luke izan behar. Hizketan hasteko, su-etena ez da aurrebaldintza bat. Aitzitik, elkarrizketa leial baten ondorio izan behar du, Irlandan bezala¹⁷.

Maila politikoa, bai, baluke hango akordio-ereduak zerikusirik hemengo politikarekin, oraindik osin handitxo baina zulatuta dagoena, batetik, estatalisten eta nazionalisten artean eta, bestetik, euskal nazionalisten artean. Eta oraindik ilunpean datzan osin hori, nola edo hala, alde batetik zein bestetik ekarritako harri handiz eta txikiz bete beharra dago. Zeregin honetan, Irlandakoa erreferentziatzat hartuta, euskal nazio-gintzaren proiektuak aurrera egin dezan, lehentasunezko urrats batzuk zedarritu beharra dago. Asmo hauek bi norabidetan joango lirateke:

Lehenik, beharrezkoa da alderdi nazionalisten artean gutxienezko adostasuna lortzea, batzen gaituen puntuak lehenetsiz eta eztabaidagarrienak –hauek gutxietsi gabe– orain dagoen baino heldutasun handiago batek ekarri beharko lukeen beste saioaldi baterako utziz. Elkartzeko gutxienezko puntuak, lehen esan bezala, herritasunaren aldetik hizkuntza eta lurraldetasuna, eta nazio-askapenerako tresna politikoaren aldetik autodeterminatzeko baldintzen zehaztapena izango lirateke. Maila ekonomikoan, berriz, Espainiako zein Frantziako merkatuen egiturazko mende-kotasunik gabeko garapena landu beharra legoke, nagusiki eskualde naturaltan oinarritutako Europaren baitan kokatuta egongo litzatekeena.

Bigarrenik, euskal nazionalisten artean gutxienezko adostasuna lortu ondoren, harremanak Espainiako estatu-mailara zabalduko lirateke, horko ordezkari politikoekin aldez aurretik negoziatuz Euskal Herrian adostutako gutxienezko puntuak eta beroriek gauzatzeko prozedurak. Beste ezer baino lehen, preso-egoera larriak duen garrantziarengatik, gobernu zentralak elkarrizketarako borondatea baduela adierazteko seinaleetako bat, horien eskubideak errespetatzea izango litzateke.

Honela, norabide bikoitzeko tren hori martxan jartzeko borondate politikoa ager dadinean, ez lehenago, orduan izango luke bere zentzua ETArek meniak. Bortxaren salakuntza egiten aritzea ez da batere operatiboa eta, alde horretatik, jarrera arras negatiboa deritzogu inori aurrebaldintzak jartzen hastea, batez ere, badakigunean batzuentzat aurrerabidean ezer egin gabe lehengoan segitzeko aitzakia ederra dela. Erantzukizunen aldabak hemen denen atetan jotzen du. Tiro hotsak isil daitezen, horretarako aukerak saihestea baino bide hoberik ez da. Gurean “gandizale” asko da, baina desobedientzia zibilaren proposamena egin izan denean, demokrata profesionalen aldetik ez da haren aldeko erantzunik izan. Oraintxe da, bada, bakerako bide demokratikoak lantzeko garai proposa.

17. «El alto el fuego no es el proceso de paz, y su fracaso no va necesariamente en detrimento de éste. El hecho de su final y la forma que ha adoptado confirman la opinión de que nunca se pretendió que fuera un abandono incondicional de la violencia. Fue parte de una negociación entre una poderosa organización paramilitar y un Estado, que reconocían un interés común por la retirada británica de Irlanda del Norte y por un proceso dirigido, político, de negociación de sus condiciones» (McSweeney 1996: 78).

Bibliografía

- Bew, P., (1994): *Ideology and the Irish nationalism, 1912-1916*, Clarendon Press, Oxford.
- Cherieux, M., (1950): *Le statut de l'Irlande du Nord*, Armand Colin, Paris.
- Danny, M.; Rodriguez Bornaetxea, A., (1997): *Análisis comparativo de la situación actual en la resolución política de los conflictos vasco e irlandés*, Hiru, Hondarribia.
- Goldring, M., (1975): *Irlande: Idéologie d'une révolution nationale*, Editions Sociales, Paris.
- Harley, S., (1987): *The Irish question as a problem in British foreign policy, 1914-1918*, MacMillan, Basingstoke, England.
- Iztueta, P., (1975): "Irlanda kolonizatua", *Zabal*, 13, 20-32.
- , (1977): "Eire/Irlanda", *Jakin*, 2, 72-80.
- Le Bailly, J., (1973): *Heroica y tenebrosa IRA*, Mensajero, Bilbo.
- Martinez, J.R., (1972): *Revolución de Irlanda*, Zero, Algorta.
- Mcsweeney, B., (1996): "Seguridad, identidad y el proceso de paz en Irlanda del Norte", in Aguirre, M. (ed.): *Raíces de los conflictos armados. Anuario del CID 1996*, Icaria, Bartzelona.
- Paor, L., (1971): *Divided Ulster*, Penguin Books Ltd, Harmondsworth, Middlesex, England.
- Patterson, H., (1997): *The Politics of illusion: A political history of the IRA*, Serif, Londres.
- Sawyer, R. (1993): *"We are but women": Women in Ireland's history*, Routledge, Londres.
- Smith, M.L.R., (1995): *Fighting for Ireland? The military strategy of the Irish Republican movement*, Routledge, Londres.
- Wilson, Th., (1989): *Ulster: Conflict and consent*, Basil Blackwell, Oxford.